



DANI BLANCO

**Joxe Iriarte, *Bikila***

◆ IDAZLEA

## Ifrentzua eta aurkia

SINBOLO GUZTIAK dira manipulariagarriak, baina batzuk gehiago besteak baino. Che Guevarak gazte matxinatuen ikurra izaten jarraitzen du, halaber, modako arropen apaingarri. Mandelaren laudorioak goiko zeruraino iritsi diren unean Leninen estatua lurreratu eta txikitu dute eskuinteko manifestariak Ukrainan.

Sinbolo batzuei aurkia ikusten zaie soil-soilik (hala nahi delako), beste batzuei berriz ifrentzua. Mandela eta Lenin esate baterako. Baina sinbolo guztiek, distiratsuenek ere, badute bere ifrentzua. Sowetoko FNB estadioan ospatu den hiletan bi alde horiek azaldu dira. Jakina, aurkiak, *Madibaren* aurpegi irribarretsua izan du protagonismo osoa, baina bere ifrentzua ere presente egon da ospakizunean. Mundu osoan milioika omenaldi ezin zintzoagoak egin dizkiote *Madibari*, horietako askok (duten azal kolorea dutela ere, zurietan zurienak) iraganeko negoziazioetan Mandela estu hartu zuten estatu buru, multinazionalak agintari, eta egun, beren lurraldeetan *apartheida* ezarri dutenak dira (Palestinan zein Melillako mugetan).

Handia izan da Mandelaren obra: arraza desberdinetan oinarritutako *apartheid* sistema ezabatzea, zuri edo beltz izan, pertsona ororen berdintasuna formalean (pertsona bat boto bat) oinarritutako gizarte bat eraikitzea ezin da inolaz ere gutxietsi. Alabaina, berdintasun formala eta benetako berdintasuna (erreal) ez da gauza bera, batez ere, sozialki hain zaitua dagoen Hego Afrikako bezalako gizarte batean.

Segur aski, Mandelaren zorigaitzerako, *apartheidaren* bukaerak eta neoliberalismo globalizatua erabateko nagusitasunak zapuztu zuten bere egitasm soziala. Hots, nazionalizazioaren eta eremu publikoaren nagusitasunean oinarrituriko ANCren programa historikoa baztertu izana. Ezin dugu ahaztu Davosko bileran Mandelak berak ontzat eman zuela zuriak eta neoliberalismoak ezartzen zizkieten mugak. Modu horretan, iraultza demokratikoa mugatuta geratu zen eta bere egitasm soziala ia hutsaren hurrengo, beltzen sektore urri batentzat izan ezik, jakina.

*Mandelaren zorigaitzerako, apartheidaren bukaerak eta neoliberalismo globalizatua erabateko nagusitasunak zapuztu zuten bere egitasm soziala*

Horrez gainera, askotan galdetu diot ene buruari, zergatik bizirik zegoela Mandelak ez zuen salatu begi-bistan zuen ANCren, gobernuaren eta buruzagi askoren (Mbeki, Zuma eta enparauen) ustelkeria? Edo oligarkia zuriaren nagusitasun ekonomikoa? Isilik jarraitu zuen ere (nik dakidala) diamante-meatzetako langile grebalaria gobernuko beltzak gupidarik gabe jipoitu zituen.

“Obra oro zirkunstanzien seme-alabak dira”, zioen Goethek. ■



## IRITZIAREN LEIHOA

**BERTSO BERRIAK****Maddi Sarasua Laskarai**

DANI BLANCO

◆  
**Doinua:** Espainian behera.

## IKEA Baionan

Nahiz proiektu itzela duten iragarri aberastasun eta lanpostu iturri. On ezin dela izan diogu igerri berriarentzat dena eraikuntza harri bihurtzen baldin bada lehengo hilerri.

Izan arren altzari handi eta fina arrotzean gurea kabitu ezina. Nahiago armario xumea, jakina nahiz ta ez distiratu besteak adina herriarentzat eta herriak egina.

Multinazionalak egin gonbitea ez ote da salduaz geronen jitea kapitalismoaren morroi egitea. Jada usaintzen zaio nahi su horri kea uholdeek eraman bezate IKEA. ■

